



Pil-pilean

TONINOLA

Soraluzeko hilabetekaria
2025ko maiatza · 422 alea



MUSIKA ESKOLAK 35 URTE



PIL-PILEAN 422

2025ko maiatza

Azalaren egilea:
Oier Larreategi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Bote prontuan Mireia Centeno | IRITZIA |
| 6 | Argazki bidez Euskaraldia | 3 Neuretik Maider Gabilondo <i>Mundu osoan 473 milioi haur gatazka eremuetan bizi dira</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 14 Gutunak Nika Iñurrieta, Jesus Mari Arruabarrena eta Ramon Iraeta <i>Alkatearen erantzunik eza, kezagarria eta ez oso edukatua; Amale El Mahfoudy Egoera gero eta sumingarriagoa</i> |
| 12 | Kirola Asier eta Iñakiren omenezko pilota txapelketa | 14 Komiki tira |
| 16 | Erreportajea Musika Eskolak 35 urte | 15 Hausnarketa Bizi izan duzu aldaketaren bat Euskaraldian? |
| 24 | Kultura Urakapinak eta Trump | 15 Puntua Iñaki Amuategi Basauri 7 |
| 26 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Ander Gomez
ander@pilpilean.eus

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi
Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia · Diputación Foral



**SORALUZKO
UDALA**

Mundu osoan 473 milioi haur gatazka-eremuetan bizi dira



MAIDER GABILONDO ARIZNABARRETA

Milioika hurrek euren eskubide funtsezkoenak urratuta ikusten dituzte gerra garaian. Gaur egun, urraketa larri gehien Gazan, Burkina Fason, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Myanmarren, Somalian, Sudanen, Sirian eta Ukrainan, gertatzen ari dira.

"Barkaezina da haurrak erasotuak, bortxatuak eta erailak izatea, eta horren aurrean, gure kontzientzia jaiki gabe eta gure duintasun-zentzua hunkitu gabe mantentzea. Gure zibilizazioaren funtsezko krisia agerian geratzen da. Gatazka armatuek haurrengan duten eragina guztion kezka izan behar du, baita guztion erantzukizuna ere".

Grça Machel politikari eta aktibista mozambiketarrak esandako hitzak dira, Nazio Batuen Batzar Nagusian gatazka armatuek haurren bizitzan duten ondorioak argitara emateko egin zen lehengo txostenaren aurkezpenean, 1996an. Ia hiru hamarkada pasa dira Machelek munduari hurrek gerretan sufritzen dutena azaldu zionetik; zoritxarrez, oraindik ere UNICEFen datuen arabera, mundu osoko 473 milioi haur gatazka-eremuetan bizi dira, azken 75 urteetan baino gehiago.

Gaur egun, begi guztiak Gazara begira daude, bertan gertatzen ari den nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketak milaka haurren bizitzaren aurka egiten duelako zuzen-zuzenean.

Baina zoritxarrez ez da herrialde bakarra, badira beste eskualde asko gatazken ondorioz haurren eskubideen urraketak jasaten ari direnak. Gatazkek eragindako gosete edo erasoengatik hiltzen ari dira Yemen eta Txaden. Mauritania, haur-ezkontzetara behartutako Maliko haur errefuxiatuak gehitzen ari dira. Afrika Erdiko Errepublikan, talde armatuek haurrak errekrutatu edo erabiltzen dituzte, eta familiek "sexua janari truke" eskaintzen dute. Edateko ura edo laguntza humanitarioa gerra-arma gisa erabiltzen ari dira, eta eskolak edo ospitaleak erasotzen ari dira Sudanen edo Gazan...

Egoera honen aurrean premiazkoa da mundu osoan BAKEA aldarrikatzen jarraitzea. Eta, bake hori iristen ez den bitartean, UNICEF bezalako erakunde humanitarioen lana bultzatzea, haur askoren bizitza eta eskubideak jokoan daudelako.

**BARKAEZINA DA
HAURRAK ERASOTUAK,
BORTXATUAK ETA
ERAILAK IZATEA"**

“Mugek segurtasuna ematen diote haurrari”

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA ZANGITU

Mireia Centeno Gutierrez (Zumaia, 1985) psikologoa eta psikopedagogoa da, haurrekin eta nerabeekin espezializatutakoa. Mugak eta segurtasun emozionala oinarri hartuta, hitzaldia eskaini zuen Tolarekua aretoan. Azpimarratu zuen bi motatako mugak daudela: derrigorrezkoak eta aukerazkoak.

Zergatik dira horren garrantzitsuak mugak?

Guztioi laguntzen gaituztelako errealitatean eta gure egunerokotasunean kokatzen. Segurtasuna ematen digu jakiteak noraino ahal garen ailegatu, espazioan, erlazioetan, emozioetan... Kokatzeko eta seguru sentitzeko modu bat dira. Mugak ez dira bakarrik etxean ondo egoteko, gizartean ondo egoteko ere badira.

Zergatik kostatzen da horrenbeste mugak jartzea?

Ezjakintasunarengatik eta mina emateko beldurrarengatik, batik bat. Askotan ez dakigu, batetik, noiz eta nola jarri eta, bestetik, zein muga jarri. Batzuetan iruditzen zaigu agian muga bat jartzeak negatiboki eragingo diola umeari emozionalki zein garapenean, eta horregatik ez dugu jartzen, baina agian, umeak benetan behar du muga hori. Beste askotan, berriz, helduari ere gaizki datorkio muga hori jartzea esfortzu bat eskatzen diolako, eta ez du ipintzen.

Bi motatako mugak desberdintzen dituzu:

derrigorrezkoak eta aukerakoak. Zeintzuk dira derrigorrezkoak?

Segurtasunarekin eta errespetuarekin zerikusia dutenak. Adibidez, nik haurrari ez badiot esaten ezin duela balkoiko goiko partera igo, agian haurra balkoitik eroriko da. Halakoak dira segurtasunezkoak. Muga horiek automatikoki eta instintiboki jartzen ditugu. Edo ezin diogu haur bati beste pertsona bat iraintzen edo jotzen utzi. Horiek errespetuzkoak dira. Kasu horietan beti ezarri behar da muga, bestela horrek epe luzera eragingo du umearen portaeran arazo bat. Berdin gerta daiteke ingurumenarekiko dagoen errespetu faltarekin. Nik haur bati ez badiot mugatzen ezin duela lorategitik nahi dituen loreak hartu edo ezin

duela lurrera zikinkeriarik bota, horrek epe luzera eragin negatiboak izango ditu.

Eta aukerako mugak zeintzuk dira?

Aukerako mugek familiarekin edo testuinguruarekin dute zerikusia. Adibidez, jantzi berokia, jan bokata, ez mugitu hainbeste... Agian ni hotzak nago, baina haurra ez, edo ez du goserik eta geroago jango du, eta haurrak mugitu egin behar dira, ingurukoak errespetatuz, noski, baina mugitu egin behar dira. Halako mugek, agian, etxe batean garrantzia izango dute, baina beste etxe batean ez. Eta batez ere, muga horiek ez betetzeak epe luzera ez du arriskurik izango haurraren garapenean, portaeran edo segurtasun fisikoan zein emozionalean. Gizarte honetan dugun arazo handiena da beharrezkoak ez diren muga gehiegi jartzen direla eta horra bideratzen dugula energia asko muga horiek jartzera eta bete araztera. Aldiz, benetan garrantzitsuak beste mugak dira, eta iruditzen zaiz askotan ez zaizkiela jartzen benetan garrantzitsuak diren mugak.

Mugak jartzea autoritarismoarekin lotzen dute hainbatek.

Mutur batetik bestera pasatu gara. Autoritarismoa ez dugu behar, baina autoritatea bai. Autoritatea edukitzeari ez diogu beldurrik izan behar, haurrek seguru ikusi behar gaituzte. Horrela erreferentzia izango gara eta gudan konfiantza edukiko dute.

Beste zerbait nabarmenduko zenuke?

Muga bat ipintzen bada, mantendu egin behar dela. Batzuetan pasatzen da haurrak demaseko kasketa hartzen duela muga batengatik eta orduan kendu egiten dugu muga hori; hori egiten dugunean, haurrak ikasten du izugarrizko haserre harrapatzen badu, nahi duena lortu ahal duela. Hor dugu mugari buruzko pista bat, adibidez: umearen haserrealdiaren ondoren muga bat kentzen badugu, ba agian muga hori ez da hain garrantzitsua eta hobe ez ipintzea. Haur bati ez diogu inoiz lagako altueran dagoen balkoi/leio batera bakarrik igotzen, nahiz eta umea haserretu, eta hori da muga hori garrantzitsua den seinale.



Mugimendua

TESTUA ARIANNE UNAMUNO

Aldi batzuk amaitzen direnean kontatzen dira. Beste batzuk kontatzen direnean amaitzen. Euskaraldiak ez du amaierarik: erabileraren aroa ez da eta sekula amaitzen. Euskararen aldia, egunez egun, ekinez, transmititzen da etorkizunera. Urrundik gatzoz eta asko egin dugu. Orain eta hemen, gehiago egiteko prest gaude: euskararen biziberritzeak mugimendua behar du. Eta gu, elkar mugitzera goaz. Hemen eta Euskal Herri osoan, eta tantatxoka, mundu zabalean ere bai. Komunitatea dugu ikur, auzolana lanabes. Eta gure txikian, handia egin dugu beste behin ere, euskararen mundu oso bat kabitzen den bezala, euskaldunok ere leku bat dugulako munduan, bagarelako nor. Batzordetik mila esker izena eman duzuen 472 ahobizi/belarriprestoi, dozenaka entitateoi, 60 boluntarioei eta lagundu duzuen denoi.





728 herritar Enplegu Zentroan

URTEBETEAN, 728 HERRITAR ARTATU DITUZTE LANBIDEK KLB8AN IZAN DUEN ENPLEGU ZENTROAN

TESTUA ETA ARGAZKIAK UBANE MADERA

2024tik, Lanbidek Soraluzen Enplegu Zentroa izan du martxan, Kalebarren 8ko lokalean. Hain zuzen, 2023an Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin zabaldutako enplegu eta gizarteratze zerbitzuari gehitu zaio Lanbidek bertan eskaini duen zerbitzua, orain arte Elgoibarren eskaini izan dituen Enplegu Zentroarekin lotutakoak.

Horri esker, orain arte Elgoibarren egin behar ziren tramiteak gehi herritarren laneratzearekin lotutako beste hainbat zerbitzu Soraluzen bertan egin ahal izan dira eta zerbitzuak erantzun benetan adierazgarria izan du.

"Asko igarri da"

Lanbideko Enplegu Zerbitzuan, besteak beste, Edurne Tercero eta Laura Diez orientatzailea ibili dira herritarrei arreta ematen. Hark emandako datuen arabera, Enplegu Zentroak, urtebetean 728 soraluzetar artatu ditu, 417 emakume eta 311 gizon, jatorri desberdinetakoak eta adin aldetik ere, denetariakoak.

Diezen esanetan, "asko igarri" da soraluzetarrek Soraluzen bertan dagoen zentro batera joateko aukera izatea. "Aurreko programan, orientazioa Elgoibarren egiten nuen eta baneukan Soraluzeko jendea, baina euren oso zaila zen



Itziar Ruiz eta Laura Diez KLB8ko bulegoan.

bertaratzea, garraio zerbitzua eskasa da. Etorri nahi zuten, baina askotan ezin izaten zuten. Orain, berriz, Soraluzeren erdi-erdian gaude eta asko igartzen da hori, askoz erabiltzaile gehiago etortzen dira, batik bat, hitzordu gabe".

Gipuzkoako langabezia bikoitza

Oro har, Soraluzen behar handia dagoela ikusi dute Enplegu Zentrokoek, hainbat ezaugarriren ondorioz. Batetik, langabezia handia dago; apirileko langabezia-tasa %11,04koa izan zen eta, Eustaten arabera, EAEn lehen hiru hilekoan %7koa eta Gipuzkoan, %5,7koa. Langabeziarekin segituz, egoera horretan epe luzean dauden herritar asko daude. Bestalde, lan bila dauden profila oso baxua da eta oinarritzko ezagutzak behar dituzte.

Azkenik, lan egin nahi duten askori, paper gabe egonda, ez diete lanik eskaintzen. "Jende asko dago epe luzez langabezian. Atzeritik etorritako askok ez dute hemengo hizkuntzarik, ez erdara, eta are gutxiago euskara. Oro har, oso oinarritzko beharrak dituzte, adibidez, eskaerak berritzea oso erraz egiten da, baina askok hori ere ezin dute egin. Ordenagailuak erabiltzeko zailtasunak dituzte...", esplikatu du Lanbideko orientatzaileak.

Begi-bistako emailzak

Laura Diezek kontatu duenez, egoera horren aurrean, Enplegu Zentroan askotariko zerbitzuak eskaintzen dute, tramiteekin lotutakoak, laneratzen laguntzeko orientazioa, enplegu eskaintzak bideratu, ordenagailuak erabiltzeko aukera eman zein Olaldean egin

diren Lanbideren formazioetarako sarbidea erraztu, elkar-EKIN ekimenarekin elkarlanean. Diezek azpimarratu duenez, emaitzak begi-bistakoak izan dira. Enplegu Zentroak artatu dituen kopuruak berak -728 herritar- erakusten du dagoen beharra; horrez aparte, Olaldeako eskaintzetan 15 lagunek parte hartu dute eta herrian langabezia-tasa jaitsi egin da apur bat 2025eko lehen hiruhilekoan.

Hori bai, une honetan Lanbideren Enplegu Zentroa itxita dago, haren esleipena urtebeterakoa baitzen. Dagoeneko egin dute eskaera datorren ikasturtetik aurrera atzera ere Sorraluzen egon dadin. Eta hori erabaki bitartean, Kalebarren 8an lehenagotik bazegoen enplegu eta gizarteratze zerbitzua berrantolatu eta enplegu-orientazio zerbitzua indartu dute. Orain, martitzenetan zein eguenetan artatzen dituzte herritarrek, martitzenetan hitzordu barik eta eguenetan hitzorduarekin -943748597 zenbakia-.

**INDARTU EGIN DUTE
ENPLEGU ZERBITZUA,
LANBIDEK ENPLEGU
ZENTROARI BURUZ
ERABAKI BITARTEAN**

"Erreferentziazko espazioa da hau eurendako"

ITZIAR RUIZ HEZITZAILEA

KLB8an, laneratze zerbitzuaz aparte, gizarteratze zerbitzua ere eskaintzen da, Zabaltzen-Sartu GKE-aren adituen eskutik. Batera edo bestera, 2021etik ari dira jabetzearekin edo ahalduztzearekin lotutako zerbitzua eskaintzen Sorraluzen, hainbat erakunde bidelagun direla. Aurtengo ikasturtean, KLB8an Ikasketak izeneko ekimena gauzatzen ari dira. Irailean hasi zen eta uztailan bukatuko da. Zabaltzen-Sartu erakundeko Itziar Ruiz hezitzailea eta Maryam Mousaif jostuna dira gidariak.

Zeini zuzendutako zerbitzua da?

Gure zerbitzua emakumeei zuzenduta dago, eta bizitzako arlo guztietan inklusioa bultzatzea du helburu. 10 emakumerendako lekua dago eta beteta dago. Martitzen, eguen eta barikuetan, 09:30etik 14:00ak arte, egoten gara. Batetik, hizkuntza



lantzen dugu, gaztelera, eta orain euskara ere bai. Inklusiorako ezinbestekoa da hizkuntza. Eta bestetik, ahalduztzearekin lotutako gaiak lantzen ditugu, autoestimua eta halakoak.

Zein emaitza nagusi lortzen dira?

Espazio segurua sortu dute euren artean; herriko beste emakume batzuekin sarea sortzea lortzen da eta bakarrik ez sentitzea ere. Horrez aparte, orain jostuntza lantzen da, Maryam Mousaifekin. Horren bitartez, ofizio bat ikasten dute, baina jarduera atsegin moduan egiten da, jostuntzaren bitartez, ezagupenak eta bizipenak partekatzen dituzte. Oro har, leku hau erreferentziatzat hartu dute eta oso pozik datoz, batzuetan akonpainamendu funtzioa ere betetzen dugu, zelanbait, harrera zerbitzua ere bada. Talde oso anitza dago, gainera. Askok laguntzen die, besteak beste, lan-orientazio zerbitzua hemen bertan izateak.

"Ondarea berreskuratzea eta jasangarritasuna uztartzen dira"

BEÑAT SARATXAGA ARKITEKTUA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: BEHARK ESTUDIOA

Behark estudioak SAPAren pabiloia zaharberritzeko egin duen proiektua, *The War is Over* izenekoa, finalista izendatu dute arkitekturako bi sariketa garrantzitsutan: Euskal Herriko Arkitektura Elkargoaren sarietan eta Espainiako Arkitektura Sarietan. Lehen sariketan, 162 proiekturen artean aukeratu dute SAPAkoa finalista eta bigarrenen 456 proiekturen artean. Beñat Saratxaga Behark Estudioko arkitektoak bi izendapenen garrantzia nabarmendu du.

Pozik izendapenekin?

Bai, oso. Finalista izatea jada saria da. Euskal Herriko elkargoaren kasuan, birgaitze edo transformazio atalean, bi sari eta lau finalista daude. Saritik handiena errekonozimendua da, horregatik finalistek ere saria jasotzen dute. Plaka bat ere jartzen da saritutako eraikinetan, diplomak banatu eta liburu bat argitaratzen da saridun eta finalistekin.

Zelan baloratzen duzue aitortza?

Euskal herrian ematen diren arkitektura saririk garrantzitsuenak dira. 36 urte pasa daramatzate eta prestigio handia dute arkitektoen artean; guretzat oso pozgarria da. Gainera, 2019an ere finalistak izan ginen eta 2022an bi sari



Beñat eta Gentzane, bazkideak. BEHARK

lortu genituen, berez oso arraroa dena, normalean estudio batek ez dituelako bi sari lortzen edizio bakar batean. Aurtengo edizioan bi proiektuekin finalista geratu gara, SAPAko eraldaketa eta Mugak, Euskadiko Nazioarteko Arkitektura Bienalerako egindako pabiloi batekin Bilboko Guggenheim museoaren ondoan eraiki genuena.

Zer baloratu dute SAPA finalista izateko?

Suposatzen dut balio ezberdinen nahasketa, baina nagusiki interbentzio eredugarri bat izatea, ondarearen berreskuraketa eta eraldaketa jasangarri bat delako.

2025eko Espainiako Arkitektura Sarietan ere bazarete finalista...

Bai; dudarik gabe aitortza garrantzitsua da, estatu mailako saria izanik kalitate handiko proiektuak bakarrik

aurkezten direlako. Dena den, proiektuaren balioak kontuan izanda, gureak planteatzen duen ondarearen berreskurapena eta jasangarritasunaren ikuspegitik, espero genuen fase honetan aukeratuak izatea. Hemendik aurrerakoa zailagoa izango da, baina hala ere, oso positiboa da horrelako proiektuak saritzea, duten balio arkitektonikoez edo formalez gain, eredugarriak direlako zentzu batean. Gure ondareari bizitza ziklo berri bat ematen diotelako, era jasangarrian, gaur egun ezinbestekoa dena. Eta gainera bizitzarako eta pertsonentzako espazio bat sortuz, behar handia duen herri batean.

Proiektzioa ere ekarriko dizue...

Arkitektura munduan batez ere, baina bai, errekonozimendu hauek prestigio handia ematen diote estudio bati, curriculuma indartzen dute... Ez bakarrik estatu mailan, baita atzerrian ere.

Zelan baloratzen duzue SAPAko lanketa?

Oso lan luzea eta zaila izan da, gehienbat proiektua egiteko agente ugari konbentzitu behar izan genituelako, Udala, URA agentzia etab. Bidea ere zailtasunez bete da, eta horien artean ekonomikoak ez dira txikiak izan. Esan behar



SAParen pabiloia zaharberritu ondoren. BEHARK

"GURETZAT SARIRIK HOBERENA IZANGO DA JENDEAK ESPAZIOA BIZI ETA DISFRUTATZEA"

da ere proiekturako oso garrantzitsuak diren gauza batzuk egin gabe geratu direla. Guk hasieratik proiektua faseka egin behar zela argi ikusi genuen eta Gabolats zubi berriaren obrarekin hori guztiz beharrezkoa suertatu zen.

Orain oso garrantzitsua iruditzen zaigu, zubia eraiki ostean bigarren faseari ekitea, espazioak era egokian funtzionatzeko eta haren potentzial guztia profitatzeko Soraluzeko biztanleentzako hiri kondentsadore eta bizi-espazio balio-anitz moduan.

Zer faltako litzateke?

Bigarren fasean SAPAko azken eraikina aterpe moduan berreskuratzeko da, zubiko oinezkoen zonaldea eta trafikoa era egokian banatzeko, eta espazioan egin behar diren ekitaldientzako espazio zerbitzari moduan erabiltzeko ere, ibaiarekin beste lotura bat sortuz. Gainera, lehen faseko nabean gillotinatuko ate batzuk jartzea aurreikusten zen espazioa behar denean itxi ahal izateko, kontzertuetarako edo sektorizazioa behar duten ekitaldietarako. Bigarren fase hori gauzatzeko aukera guztiak zabalik daude, lehen fasean demostratu dugun bezala ezina ekinez egiten da beti. Eta guretzako saririk hoberena beti izango da jendeak espazioa bizi eta disfrutatzea, herritarrek espazioa bereganatzea eta partekatzea.



SAParen pabiloia hustu eta zaharberritu baino lehen. BEHARK



Pabiloia berrituta, kanpotik. BEHARK



Pabiloia berritzen. BEHARK

Pilotarako afizioa eta gehiago

25 URTE DIRA LEHEN ALDIZ PELOTA TXAPELKETA ANTOLATU ZUTELA

TESTUA ETA ARGAZKIAK EGOITZ UNAMUNO

Aurten betetzen dira 25 urte pilota txapelketa lehen aldiz antolatu zutenetik eta antolatzaileen esanetan, ekimena egoera oso onean dago, besteak beste, aurten "gazte askok" eman dutelako izena. Aurtengo edizioa apirilean abiatu zuten 40 parte hartzaileekin eta harrezkero, ia egunero, dozenaka pilotazale batzen dira San Andresko Munua frontoian txapelketako partidak ikustera.

"Lehia sana" ardatz

Argoitz Ariznabarreta antolatzaile taldeko kidearen esanetan, "aurten jende gazte asko batu da eta hori aurreko urteetan egin den lanaren fruitua da". Hala, gaur egun, parte-hartzaile gazteenak 16 urte ditu eta helduenak 50etik gora. Ariznabarretaren ustez, "pertsonek arteko harremanak" eta "konpetizio sana" dira txapelketaren balio nagusiak eta sistema horixe bultzatzeko dago pentsatua. "Klabe nagusia da bikoteak zozketa bidez osatzea. Zozketarekin lortzen da joko maila ezberdina duten pertsonen koinziditzea bikote berean eta askotan, gainera, elkar ezagutzen ez dutenak. Hori oso aberatsa da. Horrez gain, jardunaldirik gehienetan ez da epailerik izaten eta pilotariek eurek kudeatu behar izaten dituzte partidak".

Bestalde, duela urte batzuetatik, "ligaxka bidez" jokutzen den lehen atalaren ostean, final zortzirenak eta final laurdenak kanporaketa bidez jokutzen dituzte, "partida bakarrera", lehiari "emozio gehiago" emateko.

Edizio berezia

Aurtengo edizioa berezia da, 25 urte bete direlako lehen aldiz I. San Andres pilota txapelketa jokatu zela. Hori dela eta, aurten antolatzaileek bikote bat osatu dute lehen edizio hartan parte hartu zuten Enaitz Oruesagasti "Bizkai" eta Koldo Herizekin. Enaitz, I. San Andres pilota txapelketako txapelduna da. Koldo Heriz, berriz, Asierren anaia, urte guztiotan antolatzen eta parte hartzen jarraitzen duena.

Horrekin batera, antolatzaileek data seinalatua baliatu nahi dute txapelketaren izenaren jatorria eta historia orokorra gogorarazteko, batez ere, belaunaldi berriei. Ariznabarretak honela laburbildu du: "2.000. urtea zen eta herriko zenbait pilotazalek federatu gabeko txapelketa

antolatzeari ekin zioten, herritarren artean pilotarako afizioa indartzeko asmoz. Urte hartan bertan, San Andresen frontoia eraikitzen ziharduten eta, begiak frontoi hartan ipinita, antolatzaile gazteek erabaki zuten partidak bertan jokatzeko eta txapelketari San Andresko I. Pilota Txapelketa izena ematea. Gero frontoia eraikitzeko lanak uste baino gehiago luzatu ziren eta azkenean, lehen txapelketa hura ikastolako frontoian jokatu zuten.

Handik hilabete batzuetara, txapelketaren bultzatzaile nagusia zen Asier Herizek eta Iñaki Saezek bizia galdu zuten Avilako espetxera bidean, eta hurrengo edizioan, antolatzaileek erabaki zuten txapelketa aurrerantzean Asier eta Iñakiren omenezkoa izango zela eta, gainera, aldarri egingo zuela garai hartan indarrean zen presoen sakabanatzeko politikaren aurka. 2023an, zorionez, desegin egin zen politika hori eta horrekin batera, aldarria ere bertan behera gelditu zen".

Jarraipena blogean

Txapelketako partiden egutegia, emaitzak eta sailkapena Plaentxia.eus webgunearen komunitateko blogean jarraitu daitezke, antolatzaileek astero argitaratzen duten informazioaren bitartez.

"JENDE GAZTE ASKO BATU DA ETA HORI AURREKO URTEETAN EGIN DEN LANAREN EMAITZA DA"



GUTUNAK

Alkatearen erantzunik eza, kezkagarria eta ez oso edukatua

NIKA IÑURRIETA, JESUS MARI ARRUBARRENA ETA RAMON IRAETA

Martxoaren 14an trafikogertaera baten lekuko izan ginen, Udaltzaingoaren agente batekin batera. Gertaera horrek bi ezaugarri nabarmen zituen: bata, udaltzainaren ekintzarik eza, une horretan bere funtzioa betetzea eragotziko lukeen larrialdi egoerarik edo arreta berezirik gabe, eta bi, azalpenak nahi izanez gero, udaltzainak Alkatearekin harremanetan jartzeko eskatu zigun. Gomendioa jarraituz, 15ean posta elektronikoa bidali genion Alkateari. Erantzunik jaso ez genuenez, apirilaren 11n berrirogogoratu genion, baina ez zuen erantzun. Komunikazio falta honek kezka sortzen du. Udalari arazo bat helaraztea tramite sinplea izan beharko litzateke:

arazo bat identifikatu, argi azaldu eta dagokion erantzuna jaso. Baina kasu honetan: isiltasun osoa. Erantzun falta honek herritarren konfiantza higatzen du. Isiltzea ez da jarrera neutroa; beste aldean galdetzeko eskubide legítimoak dituzten pertsonak daudela onartzeari uko egitea da. Ironikoa da, aldi berean, 'herritarren partaidetza, alkarrekin' bezalako kontzeptuak aldarrikatzea. Erantzun egokirik gabe, lelo huts bihurtzen dira. Badirudi hau dela gure Alkatearen jardunaren ohiko ezaugarria.

Egoera gero eta sumingarriagoa

AMALE EL MAHFOUDY
Kezkatuta dagoen auzokidea naizen aldetik, herriko hainbat komunitatetan bizitzen ari garen egoera gero eta sumingarriagoa publikoki salatu

nahi dut, Udala ez baita neurri erreal eta eraginkorrek hartzen ari. Azken urteotan, ikusten ari gara nola hazten diren inzibismoaren, lege kanpoko okupazioen, mehatxuen, segurtasunik ezaren eta portaera arriskutsuen kasuak herriko zenbait lekutan, bereziki Alejandro Calonge kaleko 4. zenbakian, non bertan bizi bainaiz. Ertzaintzari hainbat dei eta salaketa jarri arren, Udalak ez du inolako jarduketa zuzenik edo herritarren babesik erakutsi, eta abandonatuta eta erakundeen babesik gabe sentitzen gara. Nigatik ez ezik, kezka bera dute familia askorengatik ere hitz egiten dut. Gure egoeraren berri eman eta Soraluzen bizitzen ari den errealitatea ikusarazi nahi dugu. Izan ere, bizilagun zintzoak, langileak eta haurrak dituzten familiak alde egitea pentsatzen ari gara, gure etxebizitzetan duintasunez bizi ezin dugulako.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Hizkuntz ohiturak

Bizi izan duzu aldaketaren bat Euskaraldian?



RAQUEL MARTINEZ
ILEAPAINZAILEA

"Euskaraldian bezeroek txaparekin ikusi naute eta euskaraz gehiago egin didate. Lehen aldia izan da eta gustatu zait. Nik euskaltegian ikasi nuen bi urtez eta ulertzen dut elkarriketa nondik doan jakiteko beste, baina egiteak lotsa handia ematen dit".



EZOZI ARRILLAGA
ADMINISTRARIA

"Lanean Barakaldoko lankide bat dut eta esan zidan izena eman zuela Euskaraldian Gol-en, sindikatuaren bitartez. Gero, txaparekin topo egin genuen bulegoan eta egunotan biok egin dugu ahalegina elkarrekin euskaraz egiteko. Inoiz baino gehiago egin dugu".



PILI ESPIGA
DENDARIA

"Jendeak oso jarrera ona izan du Euskaraldian, batez ere, ikasten ari diren pertsonak. Nik euskaraz egin diet eta eurek ere euskaraz egin didate. Nire lankidea, Jessica, nikaraguarra ere euskaltegian hasi da eta egunotan hasi gara euskaraz egiten. Oso pozik nago".



BEÑAT ALBERDI
IKASLEA

"Lehenengo aldiz parte hartu dut eta balio izan dit konturatzeke zenbat egiten dugun erdaraz. Nik ahalegina egin dut bi lagunekin euskaraz egiteko eta Euskaraldia Hikan ere parte hartu dut. Ez da erraza baina nahi dut ikastea hitanoz berba egiten".

PUNTUA



IÑAKI AMUATEGI BASAURI

7

Hamaika gauza irudika lezake zazpiak: katuaren bizitzak, ostadarraren koloreak, bekatu kapitalak, asteko egunak, solfeoko notak, San Fermin eguna eta baita Euskal Herriko lurraldeen batuketa ere. Magikoa omen da zazpia, Anbotoko Marik ere bizilekua zazpi urtetik behin aldatzen ei du. Tiriki-trauki hiru eta lau dira zazpi! Gona gorria zazpi jostunek josia. Zenbat gera?, lau, bat, hiru, bost, zazpi! Zazpi astoren gainean..., ... zazpiak oihal batetik. Julen Lekuonak idatzi eta Xabier Letek kantatzen zuen Itsasoan urak handi... abestiak dio zatituri gauden bitartean, handiak, astunak eta gogorak izango direla gure herria eraikitzeke lanak. Langintza horretan aurrera egin eta soinekoa gure neurrira egin ahal izateko, ezinbestekoa dugu erabakitzeke eskubidea. Jantzi mota guztiak sartzen baitira hor eta euskal herritar guztion artean zer nolako soinekoa behar dugun aukeratzeko bide hoberik ez dagoelako. Zazpiak-bat esapidea asmatu zuen Anton Abadiak, Zazpi Euskal Herriek noizbait bat izango garela irudikatuz. Erabakiaren bidean sinesten dugunok nagia astindu, mobilizatu, hitza hartu eta Euskal Herriaren etorkizuna gure esku hartzeko beste urrats bat egiteko aukera dugu ekainaren 7an Bilbon. 7 lurraldez osatutako nazio bat garela aldarrikatu eta erakutsiko baitugu bertan. Zazpi Euskal Herriek bat egin dezagun, guztiok beti-beti gauden gu euskaldun!





35 urte musika sortzen, lantzen eta erakusten

Soraluzeko Musika Eskolak 35 urte bete ditu 2025ean. Ibilbide luze eta oparo hori ospatu egin nahi dute eta, besteak beste, ekainaren 20an kantu afaria egingo dute. Musika Eskolaren sorreran ibili ziren lagunak zein orain bertan dabiltzanak eta bestelako bidelagunak izango dira gonbidatu, besteak beste.

Argazkiak: **Soraluzeko Musika Eskola; Oier Larreategi eta U.M.** Testua: **Ubane Madera Zangitu.**



Soraluzeko Musika Eskolako hainbat irakasle, ikasle eta Musika Mugimendua, Musika Kantuz eta Musika Hizkuntzako ikasle txikiak *Doinuen lapurreta* *Sorakawan* ipuin musikatua taularatzen, maitzaren 21ean.

Ekainaren 20an ospatuko du Soraluzeko Musika Eskolak 35. urteurrena. Frontoian kantu afari herrikoia egingo dute. Salgai daude txartelak Iratxo Goxo dendan. Musika eskolako partaideez gainera, ospakizunera gonbidatu dituzte herriko eragile "gehientsuenak" eta noski, herritar guztiek dituzte ateak zabalik. Otordutxoa elkarrekin partekatu ondoren, musika eskolaren sorreran ibili zirenei aitortza helaraziko diete, besteak beste, atzera begiratu egingo duten ikus-entzunezkoen bitartez. "Nahi dugu haiek egindako lana ezagutaraztea, aitortzea eta eskerrak ematea", esan du Domentx Uzin musika eskolako zuzendariak.

Eskaera zabala

1990ean sortu zuten Soraluzeko Musika Eskola. Bultzatzaileetako bat izan zen *Atxitok* kontatu duenez, Ikastolako zein goiko eskolako gurasoak eta udal ordezkariak ibili ziren sorrera egikaritzen. Udalak, publikotasuna ez, baina dirulaguntza eman zuen proiekturako. Harekin, eta orduan herriak musikan zituen bi irakasle ezagunen adostasunarekin -Ines Mari Maiztegi eta Itziar Burunza- abiatu zuten proiektua. Gaur gaurkoz, 101 ikasle eta 12 irakasle ditu eta 18 instrumentu baino gehiago ikas daitezke bertan, baita musikarekin eta kantuarekin lotutako oinarrizko ezagutzak ikasi ere.

Orriotan ikus-entzunezkoetan lantzen ari diren atzerabegiratu horren aurrerapentxo bat egin da, testigantzez zein argazkiz.

"Beste patina bat ematen du musikak"

J.F. AIZPURU 'ATXITO' HBKO UDAL ORDEZKARIA

HBko udal ordezkari zela, Jose Frantzisko Aizpuru 'Atxito' musika eskolaren bultzatzaileetako bat izan zen.

Zelan duzu gogoan hasiera?

Udal hezkuntzako saioetan ikastola eta eskolako gurasoak, eta musika erakusten zuten bi taldeak -Ines Mari eta Itziar Burunza- elkartu eta adostu



genuen plenoan eskatzea musika eskola ofiziala, Debak-eta moduan. Ezetz esan zuten, ordea. Baina, gorabeheren

ostean, dirulaguntza bat onartu eta aurrera egin genuen. Gero, tituludun irakasleak genituen faltan. Hor, Eibarko Musika Eskolak lagundu zigun.

Zergatik nahi zenuten musika eskola?

Musikak pertsonari beste patina -brillo- bat ematen dio. Jaurilaritzari eskatu genion Hezkuntzan musika ikasgai moduan sar zezala. Horrek luze joko zuela zioten. Eta erabaki genuen musika eskola sortzea.

"Bistakoa da fruituak ematen dituela"

JOSE LUIS MENDIA
ZUZENDARITZAKOA

Jose Luis Mendia musika eskolaren lehen zuzendaritza batzordeko kide izan zen, diruzain lanetan.

Zelan duzu gogoan hasiera?

Nahiko gogorra. Ez zegoen dirurik ezta instrumentuak erosteko ere. Hala ere, Donostiara joan ginen eta instrumentuetako asko



maileguan laga zizkiguten. Eta lekuri ere ez zegoen. Musika eskola bitarte guztietan ibiltzen zen, Ezosi bideko lokalean...

Azkenean Udalaren bitartez lortu genuen lokal bat klaseak emateko.

Zelan ikusten duzu egiten dabilen bidea?

Batetik, herriari poztasuna ematen dio. Bestetik, hemengo ikasle izan diren askok aurrean segitzen dute, musikan; edozein herritatik ez dira halakoak irteten, Joanes Iñurrieta, Markel Gil, Andoni Ariznabarreta, nire alaba Nerea... Fruituak ematen dituela bistakoa da.



Musika Eskolako ikasleak 2002an.



Musika eskolako hianbat ikasle 2003an.

"Musikak beste balore batzuk ematen ditu"

IÑAKI QUINTANILLA PRESIDENTE OHIA

Iñaki Quintanilla lehendakari izan zen hasierako juntetako baten. Soinu handia bere kabuz jotzen zuen eta musika eskolan panderoa ikasten hasi zen orduan. Gaur egun, trikitia ikasten dabil.

Zein ekarpen egiten dizu musikak?

Niretzat musika oso inportantea da. Ikasteko beste



modu bat erakusten dizu eta beste balore batzuk erakusten dizkizu. Niretzat oso

inportantea da musika jakitea, pertsona asko aberasten du.

Musika Eskolak zein ekarpen egiten dio herriari?

Erretiratu eta gero, denbora gehiago dugu zerbait egiteko, eta, musika gustuko duenarendako inportantea da musika eskola izatea. Gainera, aukera ematen dizute norberaren erritmora ikasteko. Adibidez, nik oraindik ez dakit solfeo. Instrumentua jotzen bai, ordea.

"Musika eskolak asko lagundu du"

BEGOÑA TXURRUKA IKASLEA

Begoña Txurruka 10 urterekin hasi zen abesten mojekin eta, besteak beste, Ezoziko Ama abesbatzan ibili da urte luzez. Baina ikasi, musika eskolan ikasi zuen abesten eta pianoa jotzen. Plaentxia Kantuan sortu zuen.

Zuri zer eman dizu musika eskolak?

Irakasle askorekin ibilitakoa naiz bertan eta bakoitzak gauza



asko erakutsi dizkit. Adibidez, Plaentxia Kantuan-eko zuzendari izateko asko balio

izan dit musika eskolan ikasi dudana lenguaia musikalka, erritmoak, konpasak...

Eta zer ekarri du herrira musika eskolak?

Ezagun da Soraluzen musika eskolak asko lagundu duela, gaur egun jende asko dagoelako musika dakiena. Gu 25 lagun gaude Plaentxia Kantuan-en. Gustatuko litzaiguke, instrumentu gehiago izatea eta halakoetarako behar da musika eskola.



Musika eskolako ikasleak 2002ko kontzertu baten.



Musika eskolako hainbat ikasle 2003an.

"Herriarentzat oso inportantea da"

PABLO ARRUABARRENA IKASLEA

Pablo Arruabarrenaren familian beti izan dute musikarekiko zaletasuna, amak, anaiak, arrebak... Arantzazun, Pello Zabalaen eskutik ikasi zuen soinua zerbait jotzen Pablok. Bestalde musika eskolako juntakide izandakoa da.

Musika eskolaren aurretik zer zegoen herrian musikarekin lotuta?



Ines Mari, Tio Ramiro, txistulariak, Ernesto eta neu jaietan, ezkontzetan-eta

ibiltzen ginen... eta kuadrilla asko tabernetan abesten, beste giro bat.

Zertan lagundu du musika eskolak?

Herriarentzat oso inportantea da, batez ere, umeentzat, hemen bertan musika ikasi ahal izatea, eta askok ikasi dute eta ikasten dute musika eskolari esker. Ni orain, adibidez, Plaentxia Kantuan taldean nago. Lehenago txarangan ere egon nintzen...

"Poz handia ematen dio herriari"

ITZIAR BURUNZA SORRERAKO TALDEKOA ETA IRAKASLEA

Itziar Burunzari gazte tokatu zitzaion musika eskolaren sorrera. Berak jada bazuen ikasle taldea, baina ez zuen zalantzarik izan eskolari bultzada emateko.

Zelan duzu gogoan hasiera?

Oso gaztea nintzen, klaseak ematen nituen, Ines Mari ere bai. Udaletxera etorri zen



Arrasateko neska bat, proposamena egin zuen eta gustatu egin zen herrirako musikaren ideia. Herri guztietan

hasita ziren musika eskolak egiten. Gu hasi ginen batzarrak-eta egiten. Oso gogorra, baina.

Zer ematen dio musika eskolak herriari?

Poz handia. Musikari asko daude herrian, urteetan musika talde asko egin dira, Eibarko bandan parte hartzen dute, jaietarako egiten diren taldeak musika eskolatik irten dira... poza ematen du. Ni, berriz, oso gustura eta pozik nago hemen; aurrera.



Musika eskolako banda 2002an.



Musika eskolako trikitilariak Getxoko Musikaldian, 2003an.

"Beti egon da gogoa musika eskola egoteko"

NAGORE SANZ IDAZKARIA

Nagore Sanzek 29 urte daramatza musika eskolan. Irakasle da, zuzendaria izan zen 4 urtez eta zuzendaritzako kidea 3 sasoitan. Orain ikaslea ere bada, biolontxelo ikasten.

Zein da balorazio orokorra?

35 urtean hemen gaude; hori zerbaiten seinale da. Egon dira gorabeherak matrikulazioaren zein irakasleen aldetik, baina herrian beti egon da gogoa musika eskola egoteko, musika sortzeko eta musikarekin disfrutatzeko. Hori 35 urtean presente edukitzea oso positiboa da.

Zein mugari

na barmenduko zenituzke?

Oso garrantzitsuak izan dira musika eskolaren egonkortze horretara heltzeko, batetik, egoitza hau, musika eskola hona lekualdatzea eta ez egotea beste erabiltzaile batzuen menpe. Eta bestetik, langileen hitzarmena eta lan kontratuak egonkor bihurtzea.



Eta eskolako aldaketen artean...

Instrumentuen aldetik, musika ikasketa profesionalean ere horrela gertatu delako. Instrumentu elektrikoak lehen ez ofizialak ziren; profesional moduan ofizialtasuna eman zitzaientean, musika eskolan ere egokitu egin ginen; gainera, orain, 7 urtetik aurrera has

daitezke ikasten; ordura arte halakoak ziren gehiago helduendako edo nerabeendako. Eta sokazko familian, biolontxelo ere hasi ginen erakusten eta beste instrumentu guztiak mantentzea ere lortu dugu. Nahikoa lanekin baina pozik.

Zein erronka ditu?

Soraluze aldatzen ari den heinean, musika eskolan ere egokitu behar gara. Gertutasuna landu behar dugu. Jatorri ezberdineko pertsonak bizi dira Soraluzen eta dibertsitate kultural eta musikal hori oso aberasgarria da. Erronka da musika eskolak zela bat egin horrekin eta denontzat eskuragarri izatea. Horretarako badugu Hezkuntza proiektu berri bat, hori lantzen ari gara eta Jaurilaritzak ere dekretu berria atera du; hor gabilta proiektu berria egiten eta gauza hauek kontuan edukitzen, musika eskola herrian zabaltzeko denontzat.

ERRONKA LITZATEKE
ZELAN EGIN MUSIKA
ESKOLA DENONDAKO
ESKURAGARRI IZATEA



Musika eskolako ikasleak 2015eko Gabonetako kontzertuan.



Domentx Uzin musika eskolako hainbat irakaslerekin, 2016an.

"Musikak onura handiak ditu garapenean"

DOMENTX UZIN ZUZENDARIA

Domentx Uzin musika eskolako zuzendaria da 2021-2022 ikasturteetik eta bertako irakasle 2012-13tik.

Zer da musika eskola bat Soraluzerendako?

Musikak izugarrizko onurak ditu garapenean, fisikoki, mentalki eta sozialki. Halako zenbat eta jakintza eta bizipen gehiago izan, pertsona askoz osatuagoa da. Musika eskolak ematen du aukera txikitatik halako bizipenak izateko, bakarka eta taldeka. Ikasi ahal da musikaren oinarritzko ezagutza, abesten, dantzan eta ikasitakoa kanalizatu daiteke instrumentu bat jotzen. Musikako goi mailako ikasketak egin nahi dituenak aukera du lehen pausoak emateko. Musika talde baten, txarangan, bandan... parte hartzeko aukera ematen du. Pertsona nagusiendako ere oso onuragarria da, gauza gutxienetakoa da burmuineko bi hemisferioak batera martxan



ipintzen dituenak, konexio asko lortuz.

Zein laguntasun eskertuko zenukete?

Langileen eskubideak errespetatu, soldata duinak eman eta dirulaguntzen eta gurasoen kuoten arteko oreka nahi badugu, dirua behar da.

PANDEMIAN IKUSI ZEN ZENBAT ESTIMATZEN ETA BALORATZEN DEN MUSIKA

Horrez gain, eskertuko nuke, baita ere, prestigio aldetik balioan jartzea musika ikasteak dituen onurak.

Zer nahiko zenuke lortu?

Soraluzen musika jarduerak etorkizunean segitzea urte luzez, norberak nahi duen instrumentua zein musika ikastea aukerarekin.

Besterik nahi duzu gaineratu?

Prestigioarekin segituz, pandemian ikusi zen zenbat estimatzen eta baloratzen den musika. Zein punturaino den beharrezkoa musika halako momentu txarretan, eta zeresanik ez festa giroan. Baina musika zuzenean nahi bada, musikariak behar dira, eta, uste dut gaur egungo gazteek futbolarena moduko ikuspegia dutela musikarekiko, talde handiak, aberatsak, ezagunak... Bestalde, ordezkari politikoen aldetik oso-oso gaizki kontsideratuta dago musikari ofizioa.



Nagore Sanz musika eskolako abesbatzarekin, 2016an.



Txabi Labaien 2016an musika eskolaren kontzertu batean.

“Aho tratamendu integrala eta pertsonalizatua eskaintzen dugu, punta-puntako teknologiarekin”

MIKEL IÑIGUEZ ODONTOLOGOA

Mikel Iñiguez (Elgoibar, 1991) Odontologian lizentziatua da. Madrilgo Alfonso X El Sabio Unibertsitatean egin zituen lehenengo bi mailak eta EHUn azken hiru urteak. Etengabeko formakuntzan aritu da unibertsitate ikasketak amaitu zituenetik eta, besteak beste, 2 urteko graduondokoa egin zuen Leongo Unibertsitatean, Aho Kirurgia, Inplantologia eta Periodontzia ikasten. 2014han hasi zen lanean eta hamar urteko lan esperientziak emandako eskarmentua oinarri hartuta zabaldu du hortz klinika Elgoibarren.

Zertan dago espezializatua zure Klinika?

Oinarrizko odontologiaz gain, Inplantologia, Periodontzia eta Aho Kirurgia egiten ditugu batez ere. Gure paziente guztiak modu integralean tratatzen ditugu, espezialitate guztiak batzen dituen ikuspegi orokor batekin. Hemen dena egiten dugu, tratamenduaren hasieratik amaierara. Horrek, pazienteari jarraipen guztia pertsona berak egiteko aukera ematen dio, kasu honetan, nik neuk, eta konfiantza horrek lasaitasuna eskaintzen du



Ortodontzia eta Endodontzia egitera beste, bi espezialista etortzen dira.

2015ean hasi zinen lanean Donostian eta orain Elgoibarren zabaldu duzu klinika. Nolako harrera egin dizu zure herriak?

Donostiako klinikan hasi nintzen arrebarekin eta orain herrira bueltatzeko erabakia hartu dut. Nire amak lokal hau zeukan Elgoibarren, nire amonaren arropa denda izan zen urte askoan, eta orain nire klinika hemen zabaltzea aukera polita izan da. Profesionalki ondo prestatuta nago, hamar urteko esperientzia daukat, eta segurtasun osoz egiten dut lan.

Beraz, lasai etorri naiz eta oso ondo hartu naute. Nire lana atsegin dut eta etengabe ari naiz gauza berriak ikasten.

Digitalizazioak zein abantaila ekarri ditu Odontologian?

Azken hiru urteetan dena modu digitalean egiten dugu. Pazienteek, lehenengo txandatik, euren aho berreraiketa 3D formatuan ikusteko aukera dute. Horrek pazientearekin dugun komunikazioa asko erraztu du. Hasieratik ikusi daiteke ahoa zer egoeratan dagoen eta baita tratamendu ostean nola geratuko den ere. Alor guztietan abantaila ugari ekarri ditu. Tratamenduak arinagoak dira; ez dira lehen bezain luzeak. Punta-puntako teknologia erabiltzen dugu, eta digitalizazioari esker aho tratamendu integrala eta pertsonalizatua eskaini dezakegu. Aho bakoitza mundu bat da, behar desberdinak ditu, baina gaur egun, ia denetik egin daiteke.

Jende askok dentistarengana joateko beldurra dauka. Zer esango zenieke?

Lasai etortzeko. Gaur egungo teknika eta teknologiarekin ez da minik sentitzen. Hala ere dentistari izua diotenentzako edo antsietatea duten pertsonentzako, sedazio kontzientearen aukera ere badaukagu. Pazienteek ez dute ezer sentitzen. Gehiengoetan lo hartzen dute eta ez dute gogoratzen zer gertatu den prozesuan zehar. Esperientzia oso positiboa izaten da.



MIKEL IÑIGUEZ
DENTAL STUDIO



616 680 311

Kalebarren plaza 4W, behea
20870 Elgoibar

www.iniguezdentalsstudio.com



iniguez_dentalstudio

Urakapinak eta Trump

ANDRES SAN MILLAN ESKULTOREAREN EGURREZKO OBRA SORALUZEN

TESTUA ETA ARGAZKIAK EGOITZ
UNAMUNO

Duela hilabete batzuetatik, Andres San Millan eskultore eibartarraren egurrezko obra berezi bat Ezozi Auzoko Arrieta "Arritxa" baserrian daukate, berarekin zer egin erabakitzeko zain. Istorio bitxia da.

Nondik ailegatu dira Arrietara?

Iñaki Amuategi 'Txisto' Arritxa baserriko bizilagunak kontatu du eskulturak zela ailegatu diren baserrira. "Aurreko Gabonetan Andres San Millan Amuategi eskultore eibartarrak arte erakusketa berezi bat antolatu zuen Eibarko Topaleku aretoan. Andres Estatu Batuetan bizi da eta joan zen neguan espresuki etorri zen erakusketa muntatzera. Bertan, berak eskuz egindako obra berezi bat erakutsi zuen, egurrezkoa, urak ekarritako egur zatiekin, urakapinekin, egindakoa. Horretarako, lehenik, Debara joan zen eta hango hondartzan egur zatiak batu zituen. Ondoren, zatiak Elgoibarko lagun baten lokalean muntatu zituen, tirafondoekin. Hiru figura osatu zituen: astoa, gainean emakumezko bat daroala; barrenadorea; eta forjari edo errementaria. Figura horiek Eibarko langileei eta ofizio zaharrei egiten diete erreferentzia eta Gabonetan Topalekun ipini zituen ikusgai.



Eskulturak Arrieta baserrian. Hirugarrena, forjariarena, muntatzeko dago.

Erakusketa amaitu zenean, planteatu zioten ea zer iruditzen zitzaion obra Plazentziara eroatea eta berak poz handiz erantzun zuen baietz, ilusio handia egiten ziola, bere ama Soraluzekoa zelako, Miren Amuategi Casero, nire izeba, eta esan zigun hilabete batzuk barru gustura etorriko zela erakusketa muntatzera. Tratua eginda, eskulturak Arrieta baserrira ekarri genituen eta Tere Guenetxea eskultoreari jakinarazi nion.

**"SAN MILLANEN
ESKULTUREK LANGILEEI
ETA OFIZIO ZAHARREI
EGITEN DIETE
ERREFERENTZIA"**

Bitartean, Trumpek migrazio arauak zorroztu ditu eta ondorioz, Andres, beste asko bezala, beldur da herrialdetik ateratzeko".

Artelan efimeroa

Egoera horren aurrean, orain, birpentsatu egin behar dute obrarekin zer egin, kontuan hartuz obra oso hauskorra dela eta ondorioz, "efimeroa". Egileak proposatu du "San Juan bezperako sutan erretzea Trumpen sorgin ehizaren alegoria modura". Amuategik eta Guenetxeak erre aurretik ikusgai jarri nahiko litzukete herriko lekuren batean eta asmoa dute gaia Udalarekin batera aztertzeko. Laster jakingo da noiz eta nola amaituko den Debatik Sorluzerako bidea egin duten urakapinen istorioa.

xvi. erromerixa eguna

ezozin **ekainak 7. zapatua**

12:30

**txorixo egosia
banatuko da**

ostean

**dantzarien saioa
eta plazako dantzak
arrabitari eta
txistulariek girotuta**

15:00

bazkaria elizpean

Menua: Entsalada, paelia eta postrea.
Prezioa: 15 euro. 14 urtera artekoek 8
euro.
Izen-ematea: Iratxon.

18:00

**sagardo eta gazta
dastaketa**

Lizagasar eta Egotza

ostean

**erromeria
INGO
taldearekin**

19:00

**bola
premioa**

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



**ELGOIBAR
BHI**

Artistiko musikala · Osasun-zientziak
Zientifiko-teknikoa · Humanitateak
Gizarte zientziak

2025-2026 ikasturtea

Batxilergoko matrikulazio epea:
ekainaren 16tik ekainaren 30era



☎ 943 89 93 16

🌐 www.elgoibarbhi.eus

✉ 013431aa@hezkuntza.net

ZORION AGURRAK



June Sodupe Agirre
Maiatzaren 23an 6 urte. Zorionak June!!!



Julen eta Jon Azula
Maiatzaren 16an eta maiatzaren 22an, 4 eta 2 urte. Zorionak bikote! Familia guztiaz ere partez.



Aiora Elizburu eta Jose Vicente Blanco
Maiatzaren 1ean 15 urte ezkontuta. Zorionak! Etxekoan partez.



Santos Elizburu eta Idurre Blanco
Maiatzaren 4an eta maiatzaren 6an, 74 eta 10 urte. Zorionak bikote! Patxito haundi bat etxekoan partez.



Luar Akarregi Quintanilla
Maiatzaren 21ean 4 urte. Zorionak Luar! Zure bizitasuna, gure bizipoza! Maitte zaittugu, laztana! Etxekuak.



Beñat Larrañaga Gallastegi
Maiatzaren 23an 6 urte. Zorionak Beñat! Disfrutau pila bat. Patxo haundi bat.



Bidane Lazpita Ormaetxea
Maiatzaren 14an 6 urte. Zorionak etxeko guztien partez!



Haizea Tornos Azpitarte
Maiatzaren 28an urte bat. Zorionak Haizea! Soraluze ta Antekeratik! Ondo ondo ospatu lehen urteurrena!

KINTADA



1943ko kintada
2025eko maiatzaren 17an egin zuten ospakizuna Txurruka jatetxean.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

- Hildakoak**
Felisa Idigoras Gallastegi
Maria Pilar Igartua San Jose
Maria Hilaria Diaz Fernandez
Carmen Llanes Rodriguez
- Jaiotakoak**
Maira Ramos Arana



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkartasuna



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Orain dela aste batzuk izandako bilera baten etxejabe batek eskatu zuen aktan jasotzea berak eta beste jabe batek batzarrean egindako adierazpenak. Izan ere, bere ustez, funtsezkoak dira gai zerrendako puntu batean. Jakin nahi nuke akta horretan bileran gertatutako guztia jaso behar al dugun ala hartutako erabakiak besterik ez.

Legez, aktak hartutako akordioak jaso behar ditu, baita aldeko eta kontrako botoak eman dituzten jabeen izenak eta dagozkien parte-hartze kuotak, baldin eta eraginik badute akordioaren balioztasunean. Legea gubxieneko eduki batzuk jartzera mugatuta dago, akordioaren edukia aipatuz, baina hainbat kontu idatziz ez jasotzeak akta baliogabetzea eragin gabe. Beraz, aktaren edukia, etxejabeen adierazpenak, idatziak edo beste dokumentu batzuk jaso gabe, hartutako erabakietara mugatzea legearekin bat dator.

Aholkua: Ez da ez beharrezkoa, ez derrigorrezkoa ezta galdagarria ere aktan jasotzea bilera osoan barrena gertatutako guztia: etxejabeek esandakoa, emandako idatziak, egindako eskariak zein adierazpenak. Jabekideen idatziak batzea ez da aurreikuspen legala, beraz, hori ez egitea ez da legeko akats bat eta are gurtiago akta balio gabe uzteko arrazoi bat. Hortaz, erabakitakoa baino ez da modu zorrotzean jaso behar.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



BELAI TZ
NEKAZAL ETA
INDUSTRI HORNIGAIK



**Landare
eskaintza
orturako**



ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 75 25 67

Griado
Fruitategia Urdaitegia

- Enkarguak Whatsapppe
- Etxerako zerbitzua
- Iberikoak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbata: 09:00-13:00

629 918 536



TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:00
Larunbata: 08:30-13:00
igandeak: 08:30-14:30



Gosariak, ogia,
garrak, pastisak,
borbotak...
Etxera eramateko
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43





ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako
leihoen,
pertsianak,
ateak, barandak
salmenta eta
korponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Bazter Ertoko Kalea 2 - 20090 SORALUZE
e-mail: odrileihoak@gmail.com

MABEL
ILEPAINDEGIA



- Laser
depilazioa
- Keratina
tratamendua
- Solariuma

Errabai 1
Tel.: 943 75 14 89

MGS
Seguros

Veronica Galaraga
Gertuko eta segurua

Astelehenetik ostiralera:
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 18:30



Santa Ana 13
645 744 055



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgesak,
ogitariekak,
radiak,
pizkak,
gosiak...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 00

SORALUZE
MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraluze

676 556 817 - 943 75 21 38





Armendi Jatetxea

Sukalde
tradizionala

Eguneko menua
Asteburuetan
menu berezia

Karta
Burduntzan
erretako biddotsa
Etxeko fritokak
Souffles

Tel.: 943 75 10 02





IZAGUIRRE
Igeltzeritza



Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913



Kontugest
Grupo

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontugest.com

MENDIZABAL
okindegia

Ogia • Prentsa • Gosariak



Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbata eta igandeak:
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

Euskalzaletasunaren alde:

aras



ALBISUA
S.L.

laibi
ELECTRICIDAD

Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



www.antxustegi.com



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gchiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAKIA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOTZUTAKO
PAREIA



BARRAJELA



BURDINORRIA



ERAKUNTZAREN
MATERIALEK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692